



AIREA EZ DA DEBALDE [Habanako gaukaria]

Joseba Sarrionandia

Upaingoa 39
ISBN: 978-84-9172-135-2
Urtea: 2019 / 208 or.
13x19 cm

16,00 €

Ez zekiela –zioen *Bizitzea ez al da oso arriskutsua?* liburuaren sarreran autoreak– irakurtzeak askeago egiten gaituen ala gure arazoez kontzienteago bakarrik.

Egunerokotasunez eraturako saiakera literarioaren ubera hari jarraitzen dio *Airea ez da debalde* honek ere. Kronika asko daude Habanakoak, hiriak 500 urte betetzen dituen urtean senitartekorik zaharrena balitz bezala: lekua, gauden lekua izateaz gainera, garen lekua da.

Indigena, beltz, nazio baztertuko, diru gutxiko, emakume edo errebelde izatearen zoritxarrez eta dohainez arituko gara. Noizean behin, telebistan bizi nahi ez duen eta kosmonauta izan nahi lukeen ume bat pasatuko da. Bizitzaren eta aniztasunaren aldeko erresistentzian, pertsonaia biziakin batera, mamuak ari dira: Eguzkia errona edatera gonbidatu eta goizaldetik zain dagoen Enriquito, Anaïs Ninekin besotik helduta Vedadoko 11 kalean barrena ibiliko den Bartolome Santa Teresa edo Carel Fabritiusen kardantxiloa.

Lezio batzuk ere izango dira, konfusioan. Esate baterako, Onelio Jorgeren eskutik ikasiko dugu bizitzan bi gose daudela, ogiarena eta koral zaldiarena. Errealitateagatik ez ezik, imajinazioagatik ere bizi garel.

Eta hitzak leku konpartituak direla, eta hizkuntza munduaren tamainako bizilekua dela. Eta agian konturatuko gara, Jose Lezamari esker, mihia haginaren artean atxilotuta daramagun arren, mintzairarena dela bizi dezakegun abenturarik handiena.

• • •

Joseba Sarrionandia Uribelarrea
(*Iurreta-Durango, 1958*)

Soziologia eta filologia ikasi zuen. Kartzelan egon zen, 1980tik 1985 arte, eta exilioan dago geroztik. Gaur egun Habanan bizi da.

Haren obra ugari izenburu batzuk hauek dira: *Narrazioak*, Elkar, Donostia, 1983; *Ni ez naiz hemengo*, Pamiela, Iruña, 1985; *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak*, Pamiela, Iruña, 1985; *Atabala eta euria*, Elkar, Donostia, 1986; *Marginalia*, Elkar, Donostia, 1988; *Ez gara geure baitakoak*, Pamiela, Iruña, 1989; *Ainhoari gutunak*, Elkar, Donostia, 1990; *Ifar aldeko orduak*, Elkar, Donostia, 1990; *Hezurrezko xirulak*, Elkar, Donostia, 1991; *Han izanik hona naiz*, Elkar, Donostia, 1992; *Gartzelako*

poemak, Susa, Zarautz, 1992; *Miopeak, bizikletak eta beste langabetu batzuk*, Erein, Donostia, 1995; *Hnuy illa nyha majah yahoo*, Elkar, Donostia, 1995; *Hitzen ondoeza*, Txalaparta, Tafalla, 1997; *Hau da ene ondasun guzia*, Esan Ozenki/Txalaparta, Tafalla, 1999; *Lagun izoztua*, Elkar, Donostia, 2001; *Kolosala izango da*, Txalaparta, Tafalla, 2003; *Akordatzen*, Txalaparta, Tafalla, 2004; *Munduko zazpi herrialdeetako ipuinak*, Pamiela, Iruña, 2008; *Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako*, Hik hasi, Donostia, 2010; *Moroak gara behelaino artean?*, Pamiela, Iruña, 2010; *Lapur banden etika ala politika?*, Pamiela, Iruña, 2015; *Hilda dago poesia? / ¿La poesía está muerta?*, Pamiela, Iruña, 2016; *Bizitzea ez al da oso arriskutsua?*, Pamiela, Iruña, 2018

